

Udal Osoko Bilkurak 2018ko apirilaren 26an egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

Partaidetzako aurrekontuen gaineko konpromiso politikoa

Partaidetzan oinarritutako demokrazian sakontzeko bide honetan, Partaidetzako Aurrekontuak erreminta garrantzitsuak dira, herritarrek udal aurrekontu orokorretan eragiteko aukera dutelako, gai publikoetan zuzenean parte hartuz, bitartekorik gabe.

Azpimarratu behar da, aurrekontuak erakunde bateko dokumentu ekonomiko nagusia izanik -bertan zehazten baitira tokiko politika publikoaren lehentasunak-, udalbatza osatzen dugun bi alderdi politikoek (EHBILDU eta EAJ/PNV) berebizikoa deritzogula gastu publikoaren inguruko eztabaidan eta erabakietan udal ordezkarienez gain herritarrek ere parte hartzea ahalbidetzen duten prozesuak martxan jartzea.

Inguruabar horretan, udalbatza osatzen dugun bi alderdi politikoek, EHBILDUK eta EAJ/PNV-k babesa eta atxikimendua ematen diogu "Partaidetzako Aurrekontuak 2019-2020" lantzeko prozesuari, eta partaidetzan oinarritutako aurrekontu hauek Oñatik bizi duen aniztasunaren adierazle izateko bideak adostu ditugu

Jarraian, hartutako konpromiso politikoaren harira, 2018 urtean garatuko den "Partaidetzako Aurrekontuak 2019-2020" partaidetza prozesua modu orokorrean arautuko duten alderdiak zehazten dira, 2018ko apirilaren 12an eta 17an prozesurako berariaz sorturiko Jarraipen Batzordeak egindako bi bileretan adostutakoa oinarri hartuta:

1.- ERABAKITZE MAILA

"Partaidetzako Aurrekontuak 2019-2020" prozesu erabakitzailea da. Prozesu horretatik aterako den emaitza loteslea izanik, Oñatiko Udalaren ardura izango da ekintza horiek aurrera eramatea 2019 eta 2020 urteetako aurrekontuekin.

2.- AURREKONTU KOPURUA ETA ATALA

Prozesura bideratutako zenbatekoa 500.000 €-koa da. 250.000 euro 2019ko aurrekontuetan eta 250.000 euro 2020rako.

Urte bakoitzeko aurrekontuetako 200.000 € gutxienez inbertsioen kapitulutik joango dira eta 50.000 € gehienez gastuetatik (2. edo 4. kapituluetatik). Hala ere, gastuetatik ordainduko diren proposamenek urte bateko muga izango dute (hau da, ezin izango dira denboran luzatu eta udaleko hurrengo urteetako gastuetan sartu).

3.- PARTE HARTZEAREN MUGAK

Prozesuan parte hartzeko baldintzei dagokienez, hauek dira adostu diren puntuak:

- Adina: Oñatin erroldatutako 16 urtetik gorako herritar guztiek parte hartu ahal izango dute.

- Proposamen bakoitzak izan dezakeen aurrekontu muga: urte bakoitzean gehienez 80.000 € eta 120.000 € bitarteko proposamen bat exekutatu ahal izango da. Horrenbestez, urte horretan garatu beharreko beste proposamen guztiek ezin izango dute zenbateko hori gainditu. Bozketa fasean 80.000 € eta 120.000 € bitarteko proposamen bat baino gehiago aterako balira, lehenengoa 2019 urtean exekutatu litzateke eta bigarrena 2020an. Hirugarrenik egonez gero, ez litzateke aurrera aterako.

- Elkarteen parte-hartzea: elkarteak parte hartzera animatuko dira, baina proposamenak soilik norbanako gisa egin ahalko dira.
- Udal politiken aurkako proposamenak: udalaren planen kontra doazen proposamenak baztertu egingo dira (berdintasuna, euskara, ingurumena,...).

4.- BALORAZIO POLITIKOA EGITEKO IRIZPIDEAK:

Balorazio politikoa egiteko unean, zenbait proposamen prozesutik kanpo geratuko dira, honako irizpide hauen arabera:

- 2018ko udal aurrekontuan aurreikusia bada, edo dagoeneko egiten bada.
- Kudeaketaren zerikusia duten proposamenak, aurrekontu zehatz bat ez dutenak.
- Udalaren eskumena ez diren proposamenak (Foru Aldundiarenak, Eusko Jaurlaritzarenak, etab.).
- Adostutako diru kantitatea erraz gaindituko dutela aurreikusten direnak.
- Prozesuaren hasieran ezarritako irizpide politikoak betetzen ez dituzten proposamenak.
- Beste erabakigune bati dagozkion proposamenak (Mankomunitatea).

5.- JARRAIPEN BATZORDEA:

Prozesua jarraituko duen politikariek osatutako jarraipen batzorde bat egongo da, gutxienez fase bat amaitu eta hurrengoa hastean bilera bat egingo duena.

6.- BITARTEKARITZA

Konpromiso politikoa hausten bada, prozesuaren diseinu eta egikaritzerako kontratatu den kanpo aholkularitzarekin kontaktuan jartzera konprometitzen dira talde politikoak, honek bitartekaritza lanak egin ditzan.

Alkateak hitza hartu du. Esan du tokiko politika aurrera eramateko udal aurrekontuak tresna garrantzitsua izanik jada urte batzuk igaro direla udal aurrekontuen prestaketan herritarren parte-hartzea eskatzen duela Udalak. Oraingo honetan, lortu nahi dena da herritarren ekarpenak modu eraginkor baten jasotzea.

Gobernantza onaren ereduari jarraituta, Udalak partida zehatz bat jarri du, herritarrek modu zuzenean kudeatuko dutena eta herritarren ekarpenak efizienteak eta eraginkorrak izatea helburua duena.

Alkateak, bestalde, aipatu du alderdi politikoaren adostasuna lortu dela gai honetan eta herritarren parte-hartzea modu erabakitzailea izango duela. Barneko talde ere osatuko da, ikuskaritza-lanak egiteko.

Idoiaga andreak adostu den konpromisoaren ezaugarri nagusienak irakurri ditu. Bereziki aipatu du Jarraipen Batzordea EH Bilduko 3 kidek eta eta EAJ-PNV beste hiruk osatuko dutela eta fase bakoitzaren bukaeran egingo dutela jarraipena

Bukatzeko, Alkateak alde zuzenetik eskerrak eman nahi dizkie Berme taldean parte hartu duten herritarrei.

Gaia aztertu ondoren, Udal Plenoak aho batez erabaki du partaidetzako aurrekontuen gaineko konpromiso politikoa onartzea.

Oñatin, 2018ko apirilak 27an

Idazkariak